



BARREN

TOKIKOM



# Mintxeta, izar handien argitan





colchonaria textil hogar  
Etorri eta bisita gaitzazu,  
kalitatezko enunak  
topatuko dituzu!

# MERKEALDIA

**%25**eko beherapena  
Quality eta Kol etxeetako  
nordikoetan

**%45**eko  
beherapena umeen izara  
eta ohe estalkietan

**%40**ko beherapena  
manta eta izaretan

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2019-20an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik,  
urtarrilaren 13tik 24ra, otsailetik aurrera hasiko diren haurrentzat



elgoibar ikastola



[www.elgoibarikastola.eus](http://www.elgoibarikastola.eus)  
943 744441

IKASTOLA ezagutzeko aurkezpen-bilera **urtarrilaren 13an, 18:00etan**



# etxegain

RIZIGUNEA

ARGITU ZURE IKUSPEGIA  
ETA ETOR ZAITEZ  
etxegain-ERA

4. PISUA  
2 logela - 2 bainu  
Hornitutako  
sukaldea  
140.000 €

★  
1. PEORAKO  
AZKEN HIRU  
ETXEBIZITZAK!  
3 logelako etxebizitzak  
185.000 €-tik hasita  
INFORMA  
ZAITEZ!

# elgoibar

[WWW.ETXEGAIN.COM](http://WWW.ETXEGAIN.COM)

2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZA

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN  
TERRAZAK

TXOKOA DUTEN BEHEKO SOLAIRUAK  
GARAJEA SARRERAREKIN

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

BEHE SOL.  
Terraza 180 m<sup>2</sup>  
Garaje itxi bikoitza  
220.000 €



**GE** grupo eibar  
inmobiliaria

943 31 66 11

E: [comercial@gruoeibar.com](mailto:comercial@gruoeibar.com)

San Francisco 32, bajo • 20870 Elgoibar

689 66 08 01

OSKUR FINANZIARIKOKO:

**bankoa** | Grupo  
Cajastur Agrícola

## 27 lagunek eman dute izena, momentuz, aurkezle-sarean!

Aurkezle-sarea sortzen dihardugu EUSKARALDIA ariketaren bigarren edizioa Elgoibarko entitateei aurkezteko. Norberak erabakiko du zein entitateri aurkeztu nahi dion:

- Lan egiten duzun enpresan.
- Irakasle edo guraso zaren ikastetxean.
- Bazkide zaren elkartean.
- Kafea hartzen duzun tabernan.
- Erosketak egiten dituzun dendan.
- Afiliatua zaren sindikatu edo alderdi politikoan.
- ...

## Animatu zeu ere! Gehiago eta hobeto egingo dugu asko bagara!

Aurkezle-sarean izena ematen duzuenok beharrezkoa den laguntza eta materiala izango duzue, eta jasoko duzue formazioa, aurkezpenak egiten hasi aurretik.



AITOR IRIONDO, 19 urte



AMAIA SASTRE, 41 urte

### ◆ Zergatik eman duzu izena eragile-sarean?

Euskaraldiaren lehenengo edizioan konturatu nintzen euskarak nire bizitzan zein garrantzia daukan; uste dut askotan ez garela kontziente euskarak gure bizitzan hartzen duen lekuaz, eta niri Euskaraldiak lagundu dit horretan. Bigarren edizioan parte hartuko dut, sentimendu hau bestengan ere pizteko.

### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Edozeini aurkezteko prest nago, baina une honetan Danobaten dihardut lanean, eta hemen gustura egingo nuke Euskaraldiaren aurkezpena. Lankide eta ezagunei aurkeztea errazagoa egingo zaidala uste dut.

### ◆ Nola bizi izan zenuen Euskaraldiaren lehen edizioa?

Ondo. Hasieran ez nekien zein rol hartu, eta asko pentsatu ostean, *Ahobizizate*a aukeratu nuen. *Belarriprest* rolak agian nire buruarekin zintzoago jokatzeko aukera emango zidan, baina *Ahobizizate*ko ahalegina egitea erabaki nuen, eta une batzuetan huts egin banuen ere, ondo eutsi nion nire rolari. Konturatu nintzen posible dela Elgoibarren euskaraz bizitzea.

### ◆ Zergatik eman duzu izena eragile-sarean?

Euskarari bultzada emateko egitasmo interesagarria da Euskaraldia, eta garrantzitsua iruditzen zait horrelako ekimenetan parte hartzea. Euskararen alde egotea ez da nahikoa, euskararen alde egitea da garrantzitsua.

### ◆ Pentsatu al duzu zein erakunderi aurkeztuko diozun Euskaraldiaren bigarren edizioa?

Bai, Meka LHlri aurkeztuko diot, bertan egiten dudako lan. Ezagunei aurkeztea erosoagoa izango dela uste dut, eta nire lankideei gustura aurkeztuko diet bigarren edizioa.

### ◆ Nola bizi izan zenuen Euskaraldiaren lehen edizioa?

Aurreko edizioan primeran moldatu nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan ariketa. Ahobizi rola aukeratu nuen, eta saiatu nintzen hamaika egun horietan euskaraz bizitzen. Jendeak *Ahobizi* pina ikusten zidanean paparrean jarrita, euskaraz hitz egiteko ahalegina egiten zuela konturatu nintzen. Polita izan zen jendearen ahalegin hori ikustea, eta merezi izan zuen.

Aurkezle-sarean izena emateko:  [elgoibar@euskaraldia.eus](mailto:elgoibar@euskaraldia.eus)

 943 741 626

 643 499 169







## Gogorik ez duenarentzat...

zela jakitean harridura erakusten zuten gehien-gehienek.

Euskararen inguruan hasi ohi ginen berriketan orduan, eta ia kasu guztietan han agertzen zen norbait, 'es que el vasco es una lengua súper difícil' esanez. Orduan justifikatu beharra sentitzen nuen beti, esanez ez dela horren zaila, apur bat konplikatua besterik ez, desberdina dela. Euskaraz esaldiren bat esatera animatzen ninduten orduan, eta haren ostean 'bai, bai, oooooo zaila da euskara' entzuten nuen.

Kanpoan izanda ez du agian garrantzi handirik euskararen zailtasunaren inguruan eztabaidatzeak, baina

hemen mesede handirik egiten ez diola esango nuke. Gure hizkuntza zaila dela behin eta berriz entzungo zuten euskaraz ez dakitenek, eta egia esateko, egoera horretan euskara ikasteko nire motibazioa ere nabarmen jaitsiko zen. 'Bah, zertarako ikasi, hogeit urte pasa beharko baditut euskaltegian?'.

Askotan ez da kontua hizkuntza bat zaila den ala ez (hizkuntza bat izan al daiteke zaila berez?) baizik eta guk zaila dela esatean euskaldun berrien ikaste prozesuari eta haien motibazioari ematen diogun karga negatiboa baizik. Euskara, gainontzekoak bezalaxe, beste hizkuntza bat da, desberdina eta bakarra, eta gogoia duenak ikasiko du ziur; gogorik ez duenak, berriz, oooooo zaila dela esango du.

**K**anpoan izan naizen denboran jende dezente agertu du euskararekiko interesa. Hainbatek uste zuten gaztelania zela estatu espainiarreko hizkuntza bakarra, beste zenbait katalanaren berri besterik ez zuten, Netflixek *Merli* telesaila zabaltzearen ondorioz, eta gure hizkuntza euskara

*"Euskara, gainontzekoak bezalaxe, beste hizkuntza bat da, desberdina eta bakarra, eta gogoia duenak ikasiko du ziur; gogorik ez duenak, berriz, oooooo zaila dela esango du"*



**BARREN**

ARGITARATZAILEA:



**ELGOIBARKO IZARRA**  
Euskararen Argitaratzailea

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**

**943 744 112**

**Publizitatea: 943 743 704**

**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**

**barren@elgoibarkoizarra.eus**

**www.barren.eus**

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► MILESKER DENOI!

Urteak dira Gabon Zahar ferian elkartasun taloak saltzen ditugula, helburu solidario desberdinekin. Aurtengoan errepresoari aurre egiteko izango da bildutako dirua, hain justu 2019an presente izan ditugun Altsasuko gazteen auziaren alde eta Miarrizeko G7ari erantzunez antolatutako protesten ostean iritsi diren isunei aurre egiteko.

Aprobetxatu nahi genuke tarte hau eskerrak emateko ere: Ibar Txikiri lana errazteagatik; Salento pizzeriari sortzen dizkiogun eragozpenak adeitasunez eramateaz gain, beharrezko baliabideak eskaintzeagatik; Udaleko eta brigadako langileei gure lana errazteagatik, horrelako egunetan topera dabilzala dakigun arren. Nola ez aipatu Sahatzu, urtero legez bere esku-zabaltasun eta borondate ona erakutsi diguna; gustua da zurekin jardutea!

Taloak egiten edo bestelako zereginetan jardun zenuten guztioi, milesker, kausa honen alde zuen denbora eta lana eskaintzeagatik, elkartasunetik konpromisora pasaz: zuek gabe ez litzateke posible. Azkenik, eskerrak jan-edanera hurbildu zineten guztioi edo elkartasuna beste era batera erakutsi duzuenoi.

**“Elkartasun taloak” ekimena**

### ► AITA AGIRRE, EAJ-PSOEREN ETXETXOA

Abenduaren 28an Gabon Zahar azoka egin zen Elgoibarren, eta jende aldetik benetan arrakasta handia izan zuen.

Baina jende pilaketa handiek beti ekartzen dituzte ondorioak, batez ere hiri-altzarietan. Gau hartan, Aita Agirreko leihoen moldurak hondatu zirela ikusi genuen.

Jakin-minak eraman gintuen kalte horiek nola egin ziren ikustera. Azken finean, sendoa eta iraunkorra izan beharko litzateke eraikina, hala espero

da izatea Elgoibarko historiako eraikin garestienaren fatxadako elementu bat izanik.

Jendeak hondatutako elementu horietatik askatutako hondakinak jaso ahal izan genituen (hatzekin estutuz, besterik gabe), eta harrituta geratu ginen:

Leihoak inguratzen dituzten elementuak porexpanez eginak daude! (gaztelaniaz, “corcho-pan”). Gure ustez, nahitaezkoa da hirigintzako zinegotziari eta/edo alkateari azalpen ofizial bat eskatzea, ikusteko zergatik bukatu den Aita Agirre obra Lehen Hezkuntzako ikasturte amaierako eskulan bat balitz bezala. Izan duen gainkostua ez dugu uste erabilitako materialen kalitateagatik izan denik.

Ahal Dugu Elgoibartik Aita Agirreraren gainkostuari buruzko azalpenak eskatu genizkien udal-arduradunei, baina ez ziguten erantzunik eman. Eta aurkikuntza horrek pentsarazten digu badirela zenbait gauza udallexetik herritarrei ezkutatzen zaizkienak, une honetan ihes egiten diguten arazoengatik. Agian oraingoan PSOEek zerbait berria esan beharko du, Elgoibarko eskuineko alderdiak proposatzen duenaren alde bozkatu ordez, beti egiten duen bezala.

Aita Agirre bezalako gauzak gertatzen dira alderdi kontserbadore eta liberal batek 50 urte daramanean beren nahierara egiten eta desegiten. Noizko EAJ-PSOEn prentsa-ohar bat gai honi buruz? Ikusiko dugu...

**Ahal Dugu Elgoibar**

### ► ORAIN DA UNEA! ORAIN PRESOAK!

Hau da bihar Bilbon egingo den manifestazioan aldarrikatuko duguna. Pedro Sanchezek euskal presoek sakanaketa politika amaituko zuela iragarri zuen orain dela urte eta erdi. Espetxe politikan aldaketak egiteko ordua zela ere aitortu zuen. Baina pauso txiki batzuk besterik ez ditu eman. Orain, gober-

nuburu delarik berriro ere, ordua da, behingoz, pausoak ematen hasteko. Sakanaketa politika bukatzeko, preso gaixoak askatzeko, adineko presoak askatzeko (Sebas Etxaniz lehena), salbuespenezko legedia bertan behera laga eta lege arrunta aplikatzeko, eta preso guztiak etxean bukatuko duten prozesuari hasiera emateko. Euskal presoek eskubideak errespetatzea elkarbizitzarako pauso handia dela esatean adostasun zabala dago gaur egun Euskal Herrian. Bide batez, biktimak ere kontuan hartu behar dira, eta ildo horretan, biktimak izango dira manifestazio bukaeran hitz egingo dutenak (Rosa Rodero eta Asun Lasa). Beraz, guri, gizarte zibilari, dago-kigu orain adostasun zabal hori mobilizazio bihurtzea. Horregatik animatu nahi zaitugu Bilboko manifestazioan parte hartzera. Elgoibartik 16:00etan irtingo da autobusa, Txankakuako autobus geltokitik. Interesatuek Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan eman behar dute izena.

**Sare Elgoibar**

### ► OHARRA

Datorren barixua (urtarrilak 17) San Anton Eguna denez, eguenean argitaratuko dugu BARREN astekaria, hau da, hilaren 16an. Hortaz, BARRENen zerbait argitaratu nahi izanez gero, martitze eguerdirako bidali beharko diguzue. Emailez, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera bidali dezakezue argitaratu beharreko informazioa.

**BARREN**



## 36ko gerran milizianoek erabilitako lubaki bat garbitu zuten Elgoibar 1936 taldekoek egindako deialdira batutako lagunek

**A**rmueta baserriko Josefa Gabilondori 2019ko apirilean egindako elkarrizketa batean izan zuten Elgoibar 1936 taldekoek lubaki horren berri. Frankistak Armueta baserri-raino iritsi ziren gerran eta han izan ziren astebetean. Tarte horretan, tiroka aritu zitzaizkien Errepublika zaleak, lubaki horretan babestuta. Testigantza horretan jasotakoak entzunda, irailaren 18an, lubakia zegoen tokiraino gerturatu ziren Elgoibar 1936 taldekoak, Irunabe baserrikoek lagunduta, eta harresi itxurako horma bat zegoela ikusita, Aranzadikoei pasatu zieten abisua. Abenduaren 5ean, Aranzadiko kide batek detektagailua pasatu zuen eta bala-zorroak agertu zirenez, konfirmatuzat eman zuten Gabilondok esandakoa: inguru hartan lubaki bat izan zela eta milizianoek erabili zutela. Hala, urtarrilaren 4rako auzolanerako deia egin zuten memoria historikoaren aldeko taldekoek. Hiru bat ordu eman zituzten sastrakak ebaki, ingurua garbitu eta lubakia bistaritzen eta Elgoibar 36 taldeetik eskerrak eman dizkiete auzolanean parte hartu zuten



guztiei eta bereziki lekukotza eman zuen Josefa Gabilondori, Eguen Txiki baserriko Jose Antonio Gabilondo eta Teresa Arrateri eta Irunabe baserriko Amaia Baltzola eta Josu Iturberi. Bideoa ikusteko: <https://www.youtube.com/watch?v=EVrCifhQCE>.

## Aizkorri eta Urazandi lotzen dituen oinezkoentzako bidean argiteria jarri dute



Aizkorri eta Urazandi lotzen dituen oinezkoen bidean argia jarri dute. Guztira, 11 farola jarri dituzte bidean eta argiteria-sistema jartzeak 9.977 euroko kostua izan du. 2018an zortzi proiektu bozkatzeko aukera eman zuen Udalak eta boto gehien jaso zuen proiektua izan zen Urazandi eta Aizkorri batzen dituen bidea berrurbanizatzea. 2019ko urte hasieran hasi zituzten bidea egokitzeko lanak eta aspalditik zegoen zabalik.

## San Bartolome jaiak prestatzeko taldea sortzeko deialdia

2020ko San Bartolome jaietarako egitaraua osatzen laguntzeko aukera eman nahi die Elgoibarko Kultura Sailak herritarrei, eta horretarako, hainbat bilera antolatu ditu maiatzera bitartetarako. Hurrengo batzarra urtarrilaren 15ean izango da, Aita Agirre kulturegiteko areto nagusian, 18:30ean. Bileretan, ekarpenak eta proposamenak egiteko aukera izango da, baina Udaletik azpimarratu dute garrantzitsua dela bilera guztietara agertzea.

## Zabaldute matrikulaldia Debabe Udal Euskaltegian

Debabe Udal Euskaltegitik jakinarazi dute urtarrilaren 28ra arteko epea dagoela hasita dauden taldeetan izena emateko. Izena emateko, Aita Agirre eraikinean dagoen bulegotik pasatu behar da edota 943 742 731 telefono zenbakira deitu.



## Urazandiko Bizilagunen Elkarteak bilera antolatu du hilaren 15erako



J oan zen maiatzean eratu zuten Urazandiko Bizilagunen Elkarte, auzotarren beharrei erantzuteko. Urazandin bizi direnen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin elkartu dira eta hilaren 15erako batzar batera deitu dituzte auzokoak. Herri Eskolako Haur Eskolan izango da bilera, 19:30ean. Elkarteak webgunea ere badauka: [urazandiauzaa.blogspot.com](http://urazandiauzaa.blogspot.com), eta posta elektronikoa bat ere jarri dute auzoen eskura: [urazandiauzaa@gmail.com](mailto:urazandiauzaa@gmail.com). Era berean, buzoi bat ere jarri dute Asgi tabernan, auzokoek euren proposamen eta ekarpenak laga ditzaten.



### Jurdan Ezenarro, 'El Conquis' telebista saioan

Urtarrilaren 13an hasiko dira emititzen *El Conquis* reality saioa Euskal Telebistako bigarren katean, eta parte-hartzaileen artean mendaroar bat izango da: Jurdan Ezenarro.

## Aitor Gisapolak aktore onenaren saria jaso du Toledoko Mora Antzerki Jaialdian 'Rebelión en la granja' obrarekin



Bilboko Alopargo antzerki taldean dihardu egun Aitor Gisapola elgoibartarrak, eta berriki hiru sari jaso dituzte Morako Antzerki Jaialdian (Toledo), George Orwellek 1945ean argitaratu zuen *Rebelión en la granja* obraren antzezpenagatik: Obra onenaren bigarren saria, aktore onenaren saria eta bigarren mailako aktore onenaren saria. Aitor Gisapolak jaso du bigarrena, aktore onenaren saria, Napoleonen azalean. Bigarren mailako aktore onenak izendatu dituzte, berriz, Iraia Urraca, Rita Martín eta Sandra Arroyo.

## C.D. Elgoibarren zozketako zenbaki saridunak

Bi otar zozketatu zituen Gabonetan C.D. Elgoibarrek eta dagoeneko jakinarazi ditu zenbaki saridunak. 14.260 zenbakia egokitu zaio lehenengo saria eta Fermin Lazkanok jaso du saria. Bigarren saria, berriz, 30.499 zenbakiarekin Iker Calvok eskuratu du.



## Txankakuaren zozketako zenbaki saridunak, argitara

Txankakua Elgoibarko Merkatarien Elkarteak jakinarazi ditu zozketako zenbaki saridunak. Guztira hamar sari banatu dituzte: 500 euroko txeke bi, eta 100 euroko zortzi. Honako hauek dira zenbaki saridunak eta ordezkokoak.

**- 500 euroko saria jasoko dutenak:** 69.850 (55.820) / 76.631 (34.107)

**- 100 euroko saria jasoko dutenak:** 25.156 (54.303) / 71.467 (28.903) / 21.428 (76.735) / 53.667 (35.143) / 68.383 (33.259) / 05.899 (58.958) / 75.221 (72.510) / 51.929 (70.738)

2020ko otsailaren 7a arteko epea dago sariak jasotzeko.





## *Ion Gabilondo Garate*

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Ion Gabilondo Garate*

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela

Kontu kontari,  
kanta-kantari,  
beti umoretsu,  
beti alai,  
gure artetik joan zara,  
baina bizitzak aurrera darrai.  
Hau hutsunea utzi diguzuna  
barren-barrenean!  
Jakin ezazu, baina,  
beti izango zaitugula gidari,  
eta zurekin bizi izandako une gozoek,  
zure oroitzapenak, beteko dutela gure bihotza.  
Beti gogoan izango zaitugu.

Etxekoak



## *Ion Gabilondo Garate*

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela.

***Oharkabean joan zara  
urtearekin batera  
guztioi opa ondoren  
maitasuna eta bakea.***

Arantzaren eta zure lagunak



## *Ion Gabilondo Garate*

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela

Umetan sortu zen gure kuadrilla.  
Gaztaroan, berriz, elkarrekin hazi ginen.  
Zenbat jolas!  
Zenbat futbol!  
Zenbat parranda!

Zahartzarora heldu aurretik joan zara gure artetik,  
baina ez dizugu agur esango,  
oroitzapenek bizirik iraungo dutelako.

Kuadrillakoak





Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Erretsundi auzoan autoak gaizki aparkatuta egoten dira:** "Jendeak ez ditu aparkalekuak errespetatzen, eta ia egunero egoten da autoren bat espaloi gainean, oinezkoen bidea oztopatzen. Udaltzainek neurriak hartu beharko lituzkete".



**Urazandira igotzeko eskailera mekanikoen heldulekua oso zikin egoten da:** "Eskailera mekanikoen heldulekua oso zikin egoten da. Eskaileren beraren kojpea dela ematen du. Eskuak eta jantziak zikin-zikin geratzen dira, eta ez da erraz garbitzen, gainera. Eskertuko genuke eskaileren heldulekua garbitzea. Era berean, Urazandiko eskailera mekanikoak asteburu askotan geldirik egoten dira, eta ez dakigu zergatik. Eskertuko genuke Urazandiko eskaileren mantentze lanak sariago egitea".



**Eskerrak Mufomi museoko arduradunei:** "Elgoibar Ikastolatik eskerrak eman nahi dizkiegu Mufomi fosil eta mineralen museoko arduradunei, gure ikasleei emandako azalpen interesgarriengatik. Abenduan egin zuten Elgoibar Ikastolako ikasleek museora bisita, eta harrera ezin hobea egin ziguten. Umeez informazio oso interesgarria jaso zuten, eta oso pozik irten ziren museotik".



## Ion Gabilondo Garate

2019ko abenduaren 27an hil zen, 55 urte zituela

Urtea joan zitzagun iaz  
albiste txarra ekarriz,  
lagun handia joan zaigula  
bat-batean iragarritz,  
beti prest eta beti laguntzen  
alboan, ta beti irriz,  
zure laguntza eskertzen dugu,  
errespetuz ta oinarriz,  
mila esker, Ion, lagun handia,  
esanaz behin eta berriz.







Mugertza krosaren antolatzaileak eta babesleak eguaztenean egin zuten aurkezpenean.

## Obiri da izar nagusia Mugertza krosaren 77. ekitaldi "exotikoan"

**Aurtengo krosa izendatzeko berba bat aukeratzekotan "exotikoa" aukeratuko lukeela esan zuen Zigor Diezek eguaztenean, 77. Mugertza krosaren aurkezpenean. Kroseko zuzendariak azaldu zuenez, hamabi herrialdetako atletak lehiatuko dira domekan, urtarrilaren 12an, Mintxetako kros zirkuitoan. Gizonezkoen lasterketa nagusia osatzeko negoziazioak "gogorrak" izan direla aitortu zuen, baina pozik daude ekarriko dituzten atletekin eta probak izango duen mailarekin. Eta poz hori handiagoa da emakumezkoen lasterketarako atletismoko izar handi bat kontratatzea lortu dutelako, iaz Elgoibarren garaipena lortu zuen Hellen Hobiri (Kenya, 1989) Munduko Kros Txapeliduna, hain justu ere.**

- ASIER ORBEA -

**B**i baldintzak asko zaildu dute Mugertza kroseko antolatzaileen lana aurtun: 2020a urte olimpikoa izateak, udan Tokioko Olinpiar Jokoak jokatu direlako, eta aurtun ez delako bi urtean behin jokatu den Munduko Kros Txapelketarik jokatu. Bi arrazoi horienatik ohi baino zailagoa egin zaie antolatzaileei goi mailako atletak kontratatzea. "Ate asko jo behar izan ditugu atletak Elgoibarrera ekartzeko. Denak daude Olinpiar Jokoei begira. Kenyarrek, esaterako, sailkapena lortzeko hiru lasterketa oso garrantzitsu jokatu behar dituzte, eta ezin dute horietan hutsik egin. Ondorioz, ia ezinezkoa da haietakoren bat Europara ekartzea", adierazi zuen Zigor Diezek krosaren aurkezpenean. Hori dela-eta, beste inguru batzuetatik ekarri behar izan dituzte atletak. Paul Chelimo estatubatuarra da horietako bat, jatorriz kenyarra dena. Chelimok zilarrezko domina eskuratu zuen 2016an, Rio Olinpiar Jokoen. 2019ko Munduko Kros Txapelketan laugarren egin zuen Aron Kifle eritrearra izango du aurkari nagusietako bat Chelimok. Kenyar jatorriko Aras Kaya eta Richard Yator kenyarra eta Tadese Worku etiopiarra ere nabarmendu zituen Diezek. Azken biak atleta oso gazteak direla azpimarratu zuen, eta

beste atleta gazte batzuekin gertatu izan den moduan, Elgoibarren nazioartean ezagutzera emateko aukera izan dezaketela. Favorito argirik gabeko lasterketa izango dela uste du kroseko zuzendariak. "Gero eta zailagoa da izarrak diren atletak ekartzea, azken urteetan horretarako aukera izan dugun arren. Elgoibarren irabazitakoak diren Cheptegei edo Barega moduko saltakariak berriro Elgoibarrera ekartzea oso zaila da ordea, hainbat arrazoi tarteko: ez daudela sasoiko esaten digute, egutegiarekin arazoak dituztela ere bai, eta noski... urte olimpikoa dela. Elgoibarko krosak izen ona eta handia du nazioartean, atleta onenak erakartzeko adinakoa, baina batzuetan hori ere ez da nahikoa izaten". Eta hori, Elgoibarko krosak, berriro ere, mailarik gorena izango duen arren, World Athletics edo Nazioarteko Atletismo Federazioak antolatzen dituen krosetan kategoria altuena dutenen artean dagoelako.

### HELLEN OBIRI, 2019KO IZAR NAGUSIENETARIKO

Emakumezkoen lasterketarako gainerako krosak lortu ez duten atleta kontratatzea lortu dutela nabarmendu zuen Diezek: Helen



Hobiri. "Horrekin nahikoa dugu, atletismoko super izar bat delako". 2019. urtea sekulakoa izan zen Obirirentzat. Mugertza krosa erakustaldia emanez irabazi eta gero, Munduko Kros Txapelketa irabazi zuen Danimarkan, eta 5.000 metroko lasterketako munduko txapelkun izan zen gero udan, Dohan. "Dirudienez, zor-tea eman genion Elgoibarren, bere urtea izan baitzen iazkoa.

Oso pozik gaude berriro ere gure artean egongo delako, eta espero dugu falta zaion garaipen bakarra eskuratza gero Tokion, urrezko domina olinpikoa". Lehen lasterketa, alebin neskena, 9:30ean hasiko da domekan. Guztira hamabi lasterketa izango dira. Senior emakumezkoena 12:30ean hasiko da, eta gizonezkoena, 13:15ean.


## DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO SALTAKARIAK



### PAUL CHELIMO

(AEB, 1990)

- ◆ 2016ko Rioko Olinpiar Jokoetan zilarrezko domina irabazi zuen.
- ◆ 2017an brontzezko domina lortu zuen 5.000 metroan, Munduko Txapelketan.
- ◆ 7. postuan sailkatu zen Dohan, Munduko txapelketan.



### ARON KIFLE

(Eritrea, 1998)

- ◆ Laugarren postua lortu zuen 2019ko Munduko Kros Txapelketan, Danimarkan.
- ◆ Brontzezko domina irabazi zuen maratoi erdiko munduko txapelketan, 2018an.



### ARAS KAYA

(Turkia, 1994)

- ◆ Zilarrezko domina Europako Kros Txapelketan.
- ◆ Europako Kros Txapelketa, 2016an.



### RICHARD YATOR

(Kenya, 1998)

- ◆ 13. postua lortu zuen 2019ko Munduko Kros Txapelketan.
- ◆ 2017. urteko junior mailako Munduko Kros Txapelketan hiru-garren postua eskuratu zuen.



### HELLEN OBIRI

(Kenya, 1989)

- ◆ 2019an Mugertza krosa irabazi zuen Elgoibarren.
- ◆ Munduko txapelketa 5.000 metroan 2017an eta 2019an.
- ◆ 2016an, zilarrezko domina Rioko Olinpiar Jokoetan.
- ◆ 2019an, azkarrena 5.000 metroan.
- ◆ Munduko Kros Txapelketa, 2019an, Danimarkan.



### ROSE CHELIMO

(Bahrain, 1989)

- ◆ Munduko maratoi txapelketa, 2017an.
- ◆ Zilarrezko domina irabazi zuen Munduko Maratoi Txapelketan, 2019an.
- ◆ 9. postuan sailkatu zen 2017ko Munduko Kros Txapelketan.



### BEATRICE CHEBET

(Kenya, 2000)

- ◆ Junior mailako Munduko kros txapelketa.
- ◆ Junior mailako munduko txapelketa, 5.000 metroan, 2018an.
- ◆ 5.000 metroko lasterketa munduko 16. denborarik onenaren jabe da.



### EVA CHERONO

(Kenya, 1996)

- ◆ 2019ko Munduko Kros Txapelketan 8. postuan sailkatu zuen.
- ◆ Alcobendaseko krosa irabazi du denboraldi honetan.



## Eguberriei errepasoa

**A**maitu dira Eguberriak, eta hasi dira 2020ko Aegun berriak. Urte berriak hartu dio zaharrrari lekukoa, eta hasiak gara jada egunero-koan. Opor, ospakizun eta atsedeen egunak izan dira batzuentzat, baina BARRENEko argazki kamerak ez du atsedetik hartu, eta oroimenean gordetzeko hainbat une izoztu ditu klik eginda. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

## Elgoibar













# Mendaro







*Xabier Loiola (Hiru Txirlo Bolo Elkartea)*



*Ion Ulazia  
(Morkaiko Mendizale elkartea)*



*Kiroleko porrotez eta garaipenez berbetan aritu ziren lau gonbidatu: Ixa Rodriguez boxeolaria, Ander Romarate igerilari ohia, Leire Garate arraunlaria eta Unai Arrieta eskubaloijokalaria ohia eta psikologoa.*



*Jesus Azpiazu  
(Sigmako Probalekua Elkartea)*



*Anwar El Hassouni  
(Mintxeta Atletismo Taldea)*



*Eneko Ramos  
(Lagun Taldea Txirrindulari elkartea)*



*Iker Izagirre  
(Lagunak Piloia Elkartea)*



*Jabi Guallar  
(40-15 Tenis Elkartea)*



*Ales Arrieta  
(Sanlo Eskubaloijokari Taldea)*



*Janire Egaña  
(Udal Kirol Patronatua. Golfa.)*



*GARE irratizaleen kluba  
(Udal Kirol Patronatua)*



*Atabal Elkartea  
(Udal Kirol Patronatua)*





*Kirol Federatuaren Urteko Sarietako saridun guztiak, Inazio Bereziartuako auditoriumean egin zuten ekitaldian.*



**Mikel Elkoroiribe**  
(C.D. Elgoibar)



**Elizabeth Tejado**  
(Olaizaga Kirol Taldea. Karatea.)



**Elsa Sanchez**  
(Elgoibarko Igeriketa Taldea)



**Lander Agirregomezkorta**  
(Zubi Ondo Xake Elkartea)



**Jose Luis Aperribai**  
(Ur Bizi Urpeko Jardueren Elkartea)



**Garikoitz Ulazia**  
(Urnobitza Moto Kluba)



**Udal Musika Banda**  
(Udal Kirol Patronatua)



**Jose Motrel**  
(La Union ehiza elkartea)



**Juan Arizmendiarieta**  
(Zarta arkulari taldea)





## *Máximo Martínez Yuba*

2019ko abenduaren 20an hil zen, 93 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barreanean  
eramango zaitugu betiko.***



## *Rosario Amestoy Fernandez*

2020ko urtarrilaren 2an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.


***Emazte, ama eta amona  
zoragarria izan zara.  
Gure ondotik joan arren,  
beti bihotzean eramango  
zaituen familia utzi duzu.***



## *Ramon Aramburu Igarzabal*

2020ko urtarrilaren 3an hil zen, 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gizon umila, gizon alaia,  
argi ta eskuzabala;  
aita, senar ta lagun artean  
izan zara espeziala.  
Urteak gogor ta hotz jo gaitu  
hasi eta berehala...  
Jakin gure bihotzetan beti  
bizi izango zarela.***



## Antzerkia eta dantza uztartzen dituen 'Martin Zalakain' ikuskizuna emango dute hilaren 18an kiroldegian

Juan Antonio Urbeltz koreografoak sortu zuen *Martin Zalakain* ikuskizuna, Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* eleberria oinarri hartuta. 2017ko azaroan eman zuten estreinakoz Bilboko Arriaga Antzokian, eta gerotik, dozenaka emanaldi egin dituzte, arrakasta handiz; azkena, Gasteizko Printzipal Aretoan, urtarrilaren 4an. Elgoibarren urtarrilaren 18an ikusteko aukera izango da, kiroldegian, 20:30ean. Sarrerak Kutxabank bidez salduko dituzte, bai eta leihatilan ere, egunean bertan, 10 euroan.

Harkaitz Canok egokitu du Pio Barojaren testua obrarako eta Ander Lipusek



betetzen du ikuskizunean On Piren papi. Lipus bera da, era berean, antzerki zuzendaria ere. Dantza, musika eta antzerkia batzen ditu ikuskizunak eta Ander Lipusekin batera 80 bat dantzari igoko dira oholtzara: Urbeltzek gidatzen duen Argia dantza konpainiakoak, El-

goibarko Haritz Euskal Dantzari Taldekoak, Eibarko Kezka Dantza Taldekoak, Iruñeko Duguna taldekoak, Miarrizeko Maritzulikoak, Portugaleteko Elai-Alaiakoak, Añorgako Arkaitz taldekoak, Astigarragako Astigarrekoak eta Debako Gure Kai taldekoak.

### Astelehenean zabalduko du Taupadak otsailerako antolatutako duen maskara tailerrerako izena emateko epea

Maskarak egiteko tailerra antolatutako Taupada antzeztaldeak. Kukubiltxo taldeko Josu Camara izango da irakaslea eta bi zapatutan izango dira saioak, otsailaren 8an eta 15ean, Kultur Etxeko Sotoan, 10:00etatik 14:00etara. Ikasturorako izena emateko epea urtarrilaren 13an, astelehenean, zabalduko dute, eta otsailaren 6an itxi. Interesatuak Taupadaren e-postara idatzita ([taupada0@gmail.com](mailto:taupada0@gmail.com)) edota 656 416 677 telefono zenbakira deituta nahiz whatsapp idatzita eman dezakete izena. Matrikula 20 eurokoa izango da.

### Mendaro Ikastolako sei neska-mutilen lanak eta Debako Luzaro ikastetxeko bi ikasleren lanak saritu dituzte Mendaroko Ipuin Lehiaketan

Astelehenean, Errege magoen desfile ostean, banatu zituen Mendaroko Udalak ipuin lehiaketako sariak. Guztira, 167 eskola-umek parte hartu dute aurten, eta zortzi sari banatu dituzte. Hiru maila izan dira aurten, eta maila bakoitzean ariketa ezberdina egin behar izan dute umek. A mailan, LH1etik LH4ra arteko neska-mutilek parte hartu dute. Parte-hartzaile guztiei ipuin bana irakurri zieten ikasgelan eta ipuina irakurri ostean marrazkia egin behar izan zuten lehiaketarako. Guztira, 103 marrazki aurkeztu zituzten. B mailan, alderantzizko lana egin zuten: emandako marrazki baten gainean ipuina sortu. LH5etik DBH2ra artekoek parte hartu zuten, eta 64 ipuin idatzi zituzten guztira. C maila DBH3 eta DBH4koentzat sortu zuten. Komikia sortzeko eskatu zieten, baina ez zuten lanik jaso bueltan. Sariak ere mailaka banatu zituzten. A mailan, lau sari banatu zituzten, eta hauek izan ziren sariak: Irati Usobiaga (LH1), Nahia Jimenez (LH2), Lizar Ezenarro



(LH3) eta Ilune Rico (LH4). B mailan, beste lau sari banatu zituzten. LH5ekoan artean, Nagore Arakistain Sotoren *Super heroia ipuina* eta Jule Goikoetxea Larrañagaren *Bi bikiak eta Koldo* ipuinak saritu zituzten, eta LH6koan artean, Antonella Cazarden *Basamortuko gerrak* eta Anuska Reverten *Amets bat*.



## San Anton Pilota Txapelketako finalerdiak, gaur



Afizionatu mailako pilotari onenatarikoak lehiatzen ari dira San Anton Pilota Txapelketaren 28. ekitaldian. Lagunak Pilota Eskolak eta Udal Kirok Patronatuak antolatzen duten torneoko lehen finalerdia joan den urtarrilaren 3an jokatu zituzten. Promesa mailako neurketan Alberdi Ilk eta Morgaetxeberriak 22-13 irabazi zieten Senarri eta Urangari, eta urtarrilaren 17an jokatu den finalerako sailkatu ziren. Bigarren finalerdian, senior mailakoan, Muruak eta Iriondok 22-14 irabazi zieten Lerenak eta Arbizuk osatutako bikoteari. Gaur, hilak 10, jokatu dituzte bigarren finalerdiak, 22:00etatik aurrera, Ikastolako frontoian. Promesetan, De la Fuentek eta Apezetxeak Larrazabal eta Elosegiz izango dituzte aurkari. Jaialdiko bigarren neurketan, Elolak eta Mariezkurrenak Expositoren eta Gaskueren aurka jokatu dute. Sarrera doan izango da.

## Iker Izagirre pilotaria Gipuzkoako txapeldun

Eskuz Banakako Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu zituzten urtarrilaren 3an, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Lagunak Pilota Eskolako kide Iker Izagirrek Andoingo Gazteleku taldeko Segurola izan zuen aurkari 1. urteko infantilen finalean, eta elgoibartarrak irabazi zuen. Segurolak sakea izan zuen lehen jokoan 5-8 gailendu zen Izagirre, eta bere sakearekin 8-0 irabazi zuen bigarren jokoa. Alex Bergua ere lehiatu da txapelketa honetan, kadete mailan, baina finalerdietan kanporatu zuten, Zazpi Iturri taldeko Mujikaren aurka 18-16ko emaitzarekin galdu eta gero.



## Sanloko bost jokalarik Euskadiko selekzioarekin lehiatu dira Kantabrian



Federazio autonomikoen Espainiako Eskubaloi Txapelketa jokatu zuten urtarrilaren 2tik 7ra bitartean, Kantabrian. Infantil, kadete eta jubenil mailako neska-mutilen 19 selekziok hartu zuten parte, tartean Euskadiko selekzioek. Sanlo eskubaloi taldeko bost jokalarik hartu zuten parte, euskal selekzioa ordezkatzuz. Nahia Urbiolak infantil mailako Euskadiko selekzioarekin jokatu zuen eta zazpigarren postuan sailkatu ziren. Kadete mailako selekzioan bi ordezkari eduki zituzten Sanlok, Olaia Aizpirtarte eta June Zubiaurre eta hirugarren postuan lortuta zilarrezko domina eskuratu zuten. Kadete mutilen selekzioarekin aritu zen Markel Orbea, eta bosgarren postuan sailkatu ziren. Maddi Goñik ere bosgarren postua lortu zuen jubenil mailako selekzioarekin.



## Felix Manso eta Jabi Muñoz gailendu dira Elgoibarren eta Mendaron jokatu dituzten xake txapelketetan

**D**anobat-Iriondo Xake Txapelketaren zazpigarren ekitaldia jokatu dute 50 xakelari inguruk, urritik hona, Iriondo tabernan. Felix Manso urnietarra gailendu da, bederatzi jardunalditan 7,5 puntu lortuta. Jon Esturo debarrek egin du bigarren, honek ere 7,5 punturekin, eta Mikel Leon elgoibartarra sailkatu da hirugarren postuan, 6 punturekin. Bigarren mailan Markel Kerexeta gailendu da, eta Eneko Alberdi eta Migel Angel Gomezekin batera lehen mailara igotzea lortu du. Hirugarren mailan Iker Ruizek irabazi zuen, eta Julen Agirrek, laugarren mailan. Elgoibarko xakelariez gainera, Mendaro, Deba, Eibar, Azkoitia, Azpeitia, Soraluze, Hernani edo Donostiako xakelariak ere hartu dute parte.

### Jabi Muñoz onena Mendaron

Kilimon Xake Taldeak antolatuta, Xake Azkarreko Mendaroko I. Txapelketa jokatu zuten Mendaron, abenduaren 29an. Xakea ikusgarri egiteko, kalean, Herriko Enparantzan, jokatu zituzten partidak, asmo horretarako egun hotza aukeratu bazuten ere. Hotzari



aurre egiteko salda beroa atera zieten Uztargi tabernakoek parte-hartzaileei, eta eskerrak partida azkarren txapelketa zela eta partida bakoitza bost minutuan amaitu behar zutela. Guztira bederatzi lagunek hartu zuten parte. Jabi Muñoz gailendu zen, jokatutako zortzi partidetan 24 puntu eskuratuta. Mikel Fidalgo sailkatu zen bigarren postuan, 21 punturekin eta Eneko Egañak egin zuen hirugarren 15 puntu lortuta. Antolatzaileek eskerrak eman diote txapelketako babeslea izan den Uztargi tabernari, txapelketa jokatu ahal izateko "logistika" guztia prestatzen laguntzeagatik.



## Elgoibarko atleta olinpikoei buruzko mahai-ingurua egingo dute gaur, Aita Agirre Kulturgunean

1920an Belgikako Anberes hirian jokatu zituzten Olinpiar Jokotan bi elgoibartarrek hartu zuten parte, Juan Mugertzak eta Inazio Izagirrek. Espainiako delegazio batek Olinpiar Jokotan parte hartu zuen aurreneko aldia izan zen Anbereskoa. Aurten mendeurrena beteko dela-eta, sasoi haiek gogora ekartzeko mahai-ingurua antolatu dute Mintxeta Atletismo Taldeak eta Corredor aldizkariak. Gaur, urtarrilaren 10ean, izango da solasaldia Aita Agirre Kulturgunean, 19:30ean hasita. Anbereseko Olinpiar Jokotan parte hartu zuten bi atleta elgoibartarren ibilerak izango dituzte hizpide bereziki. Hain zuzen ere, Mugertzaren eta Izagirreren familiako kideek hartuko dute parte mahai-inguruan. Mugertza krosaren historia eta estatistiketan adituak diren Juan Mari Iriondo eta Felix Astigarraga elgoibartarrek ere hartuko dute parte eta baita Alessandra Aguilar (Lugo, Espainia, 1978) antxitxikari



ohiak ere. Aguilarrek makina bat bider parte hartu izan du Mugertza krosan eta hiru Olinpiar Jokotan parte hartutakoa da: Pekin (2008), Londres (2012) eta Rio de Janeiro (2016). Alex Calabuig eta Miguel Calvo izango dira mahai-inguruaren gidariak.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko garbiketa lanak egin ere. Orduka nahiz etxeko langile moduan lan egiteko prest.  
☎ 632 354 511

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia handia daukat.  
☎ 643 278 344

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut.  
☎ 671 989 434

Garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko prest nago.  
☎ 688 698 854

Adinekoak zaintzeko, lokalak garbitzeko edo zama-lanetarako prest nago. ☎ 631 049 957

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 631 436 925

Adinekoak eta umeak zaindu, garbitzaile lanak egin nahiz baserriko lanetan lagunduko nuke.  
☎ 632 423 521

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 622 153 750

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko etako eta lokaletako garbiketa lanak egin ere. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest.  
☎ 631 439 959

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, Elgoibarren, Mendaron, Eibarren edo Ermuan. Orduka, egun osoz edo etxeko langile moduan.  
☎ 643 977 786

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.  
☎ 637 102 725

**Eskaintzak**

DBH3ko klase partikularak emango dituen pertsona baten bila nabil. ☎ 617 386 198

Elgoibarko enpresa batean egun erdiz txofer eta biltegi lanak egiteko pertsona behar da. Curriculumak bidali: [gmirenb@gmail.com](mailto:gmirenb@gmail.com)

Abentura jardueretarako (Paintball) monitoreak behar dira asteburuetarako. Euskara jakitea beharrezkoa da eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Ainhoa  
☎ 660 450 245

**ETXEBIZITZAK.....**

Etxea alokatzen dut, San Roke kalean. Bi logela, bi komun. Etxe polita, berriua. Igogailua eta lur erradiazatzailea, Bista politak, logela guztiak kanpoaldera ematen dute. ☎ 660 042 159 (Arratsaldez).

**OSPAKIZUNAK.....**

75ean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute maiatzaren 23an, Belaustegin. Interesatuak idatzi helbide elektroniko honetara: [1975kintadaelgoibar@gmail.com](mailto:1975kintadaelgoibar@gmail.com)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**  
Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



## BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

Hego Euskal Herria eta Espainia: **31€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek **25€**)  
Ipar Euskal Herria eta Europa: **44€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **34€**)  
Europatik kanpo: **56€** (Elgoibarko Izarrako bazkideek: **45€**)

Harremanetarako: **943 744 112** edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Federación Española Administradores Locales Autónomos



ROSA M<sup>a</sup>  
PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

**Gure eraikinaren teilatupean atiko bat eraiki nahi du etxejabe batek. Jakin nahi nuke hori egiterik daukan edo ez.**  
Legeak zerrenda bat jasotzen du, baina zerrenda hori ez da zehatza, komuntzat jotzen diren elementuena, besteak beste: hegaldia, eraikitakoa gainditzen duen aire-espazioa... Altxatzeko eskubidea izanik, eskubide hori eratzeko tituluan jabe jakin batentzat erreserbatuta dagoen kasua ere gerta daiteke, eta kasu horretan jabe horrek izango du eskubide hori.  
Zure kasuan ez da zehazten zein egoeratan dagoen zuen komunitatea. Aurreratu diezazukedana da solairu berri bat eraikitzea prozedura konplexua dela. Lehenik eta behin, elementu komuna denez, jabe guztien adostasuna behar da teilatupean eraikitzeko, eraikinaren konfigurazioa aldatzen delako.  
Bestalde, eratzeko tituluan jasotze-eskubidea pribatibo gisa deskribatzen bada, legeria orokorrak hurrengo baldintzak aurreikustea eskatzen du, ahalmen hori gauzatuko denerako. Besteak beste: sortuko diren finka berriei dagozkien kuotak zehaztea, baimendutako solairu kopurua, eskubidea baliatzeko epea eta Europako Batasuneko arauak zerikusia duten beste hainbat alderdi.  
**GOMENDIOA: Eraikinaren hirigintza-arauak, ordenantzak eta beste udal-arau batzuk ere kontuan hartu behar dira. Horietan kontuan eduki beharreko funtsezko elementuak zehazten dira, besteak beste, eraikuntzei baimentzen zaien gehieneko altuera, eraiki daitezkeen solairu berriak...**





Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.




Zorionak, **Lea**, a benduaren 30ean urteko bat bete zenuelako. Ederto ospatu genuen! Patxo potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Udane**, urtarillaren 5ean 3 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Urko**, urtarillaren 3an urteko bat bete zenuelako. Muxu asko etxeko eta bereziki, Izeia, Oier eta Unaxen partez.



Zorionak, **Ander**, eta patxo potolo bat zure zazpigarren urtebetetzean.




Zorionak, **Iker!** Bihar 8 urte handi! Muxu pila bat, familiako denon partez.



Atzoko partez, zorionak, **Ihintza**, zure zortzigarren urtebetetzean. Patxo potolo bat sorginak, ondarrutar zintzo bi eta Iratxoaren partez.



Zorionak, **Ander**, urtarillaren 8an 5 urte egin zenituelako. Etxeko guztion partez, muxu handi bat.




Zorionak, **Aietz**, urtarillaren 2an 6 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, familiako denon partez.



Zorionak, **Lucia**, gure printzesa, 5 urte bete dituzulako! Muxuak etxeko, eta bereziki, Alex eta Mikelen partez.



Zorionak, **Intza!** Gure *xaladak* 2 urte dagoeneko! Patxo handi bat, familiako denon partez.



Zorionak, **Zohargi** eta **Onintza!** Zuen urtebetetzeekin hasi dugu urtea! Jarraitu horren jator. Muxu pila bat, familiako denon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**IKASGO**  
ACADEMY

- INGELES ESKOLA ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAREN PRESTAKUNTZA
- IRAKASKUNTZA PERTSONALIZATUA
- TALDE TXIKIAK

**667 261 248**  
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar  
[akademielgoibar@gmail.com](mailto:akademielgoibar@gmail.com)

**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
[cordonvilarchao@telefonica.net](mailto:cordonvilarchao@telefonica.net)  
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 98 61 62**

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

**WUQ2448XES BOSCH**  
**ARROPA GARBIGAILUA**

499 €

Hatz marken kontrako altzairu herdoilgaitza / 1200 r.p.m.  
A+++ (-%30) / 8kg-ko karga / Pausa- Karga funtzioa  
SpeedPERFECT / Ur kontsumo minimoa

**MILARBIRE**  
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



## 10 BARIKUA

**19:30** Mahai-ingurua: Juan Mugertza eta Inazio Izagirre atleta elgoibartarrek Anbereseko Olinpiar Jokoetan izandako bizipenak. Aita Agirre kulturgunean.

**21:30** Bideo foruma: 'Figuras ocultas'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Loredi Salegik gidatuko du saioa.

**22:00** San Anton pilota txapelketa. Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak eta Kirol Patronatua.

## 11 ZAPATUA

**19:15** Juan Mugertza Marrazki Lehiaketako sari banaketa. Udaletxean.

**19:30** Juan Mugertza krosekoko korrikalariei harrera. Udaletxean.

## 12 DOMEKA

**10:00** Juan Mugertza Nazioarteko krosa. Mintxetan.

## 13 ASTELEHENA

**19:00** Elgoibarko pentsiodunen batzarra. Herriko Antzokian.

## 14 MARTITZENA

**20:30** La Union elkarteko kirol sailareneko urteko batzarra. La Union elkartean.

## 15 EGUAZTENA

**18:30** San Bartolome jaiak antolatzeko bilera irekia. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

**19:30** Urazandi auzoko elkartearen bilera irekia. La Union elkartean. Auzoaren beharrak aztertze batzarra.

## 16 EGUENA

**20:30** La Union elkarteko urteko batzarra. La Union elkartean.

## SAN ANTON JAIK

Urtarrilak 17, 18, 19 eta 25

### URTARRILAK 17, BARIKUA

#### San Anton Eguna

**11:00** Meza Nagusia, San Bartolome parrokian. Abesbatzak kantatuko du.

**11:30-14:00 / 16:30 19:30** Umeentzako parkea, Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman).

**12:30** San Anton kontzertua: Arturo Duo Vital haize boskotea. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

**12:30** Zigilu Erakusketa: '50 Txiki Elkarrekin'. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**17:30** Erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, herriko dultzaineroekin.

**22:00** Pilota txapelketako finala, Ikastolako frontoian. Antolatzaileak: Lagunak eta Kirol Patronatua.

### URTARRILAK 18, ZAPATUA

**20:30** 'Martin Zalakain' dantza ikuskizuna. Ikerfolk Arterdrama taldeak taularatuko du, Olaizaga kiroldegian.

### URTARRILAK 19, DOMEKA

**16:30** 'Itsasoen deiadarra', antzerki musikatua. Musbika Elkartek taularatuko du, Herriko Antzokian.

### URTARRILAK 25, ZAPATUA

**11:00** Filatelia elkarteetako Euskal Federazioaren batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**13:00** Filatelia erakusketaren amaiera, eta parte-hartzaile eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia. Kultur Etxean.



## Martina Andonegi Arriola

2019ko abenduaren 22an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Argi bat itzali da hemen lurrean  
berri bat piztu da han zeru ederrean  
beti jarraituko duzu gure bihotzean.*





Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
10 BARIKUA	11 ZAPATUA	12 DOMEKA	13 ASTELEHENA	14 MARTITZENA	15 EGUAZTENA	16 EGUENA	17 BARIKUA
Egunez * Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego
Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gaez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984

Zinea (Herriko Antzokian)

**'El silencio de la ciudad blanca'**  
10 barikua: 21:30  
11 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
12 domeka: 19:00  
13 astelehena: 21:30



**'La familia Addams'**  
12 domeka: 16:30



**'Sorry we missed you'**  
(Ongarri zinekluba)  
16 eguena: 21:30





## GREMIOEN GIDA

Gidan agertzearen onurak!

21€

Hilean

12

aldiz urtean

4.885

ala astero

21 Cren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta india erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleho ikusiena.

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

943 744 112 [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR







Iñigo Lamelas

## Irati Agirreazaldegi



Esateraren arabera katuek bakarrik egiten dute lan domekan. Urte Berri eguna igandea ez, baina jai eguna izanik, katua begi dizdiratsuz argi ematera irten zen, gehienen ustez hala ez izan arren, batzuentzat iluna den Gabon Zahar gau horretan.

Urtea alai bezain argi hasi zuten horien gaua are dizdiratsuago ipini zuten begiek gaueko jaietan.

Katu beltzak edozeini ekartzen omen dio zorte txarra, baina gabez guztiek dute kolore nabarra. Gainera, beltza okerra dela esanaz zergatik egin beti marmarra?

Bizkaiko kopia zahar batzuek hala egiten zioten erreferentzia beltzari: *“Baltza nazela diñeuste/ai niri ez deust ardure/ardava baltza da baina/ai danak edaten deure”*, eta Gabon hauetan askok egingo zion trago ardoari.

Aipatutako ardo beltza, edo zuria txanpaina edo kaba; katu ilu-

nari, argazkia atera aurretik argi egin ziona burbuilekin mara-mara.

Aurten, ordea, urte berriarekin elurra falta eta bat baino gehiago aritu da ikatz beltza ekarri dion Olentzerori elurra eskaka, zuriz jantzita behar lukeen pista beltzetik jaitsi ezinda geratu da-eta.

Zuria edo beltza, baietza edo ezetza, bazterreko bi koloreek talka egitean beteko al da gure ametsa? Oraindik urrun da urte hasi berriaren amaierako ertza, beraz, hasi eta bukatzeko zein kolore aukeratu bakoitzak aukeratu beza.

2020, zero edo bi, bi edo zero, aukeratzeko gutxi dago gero. Iluna argitzeko, ordea, ez ginake kexatuko bi begi horiena bezalako dizdirarik beste une batzuetan balego.

Bi maitasun izpiak, bi laguntasun printzak, horiek lirake egoki urteko bidegurutze ilunen atean barrena argia aurkitzeko giltzak. Aurtengo bidean galdu eta elur egunetako haizeak eramaterik nahi ez badugu, zurian beltz gelditu beharko dira ateratako argazkiari buruz idatzitako hitzak.

*“Zuria edo beltza, baietza edo ezetza, bazterreko bi koloreek talka egitean beteko al da gure ametsa?”*





I. URTEURRENA

## Jesus Urizar Artolazabal

"Plaentxi"

2019ko urtarrilaren 7an hil zen, 69 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urtarrilaren 11n, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Haizeak darabil zure ahotsaren doinua  
bihotzean daramagu zure irribarrea  
gogoan zaitugu orain eta betiko.**

Familia



I. URTEURRENA

## Braulio Sahagun Sanchez

2019ko urtarrilaren 9an hil zen, 89 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.**



II. URTEURRENA

## Pedro Mari Esnaola Irusta

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, eguenean, urtarrilaren 16an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.




III. URTEURRENA

## Pedro Jose Ansola Garate

2017ko urtarrilaren 5ean hil zen, 57 urte zituela.

**Lagunak elkartzen garenean  
Kimetzen mahaiaren bueltan,  
ardo zurretik kopak altxa  
eta topa egitean,  
Txiki Egunez, urte zaharrez  
irailaren hamalauan,  
zurekin pasatako uneak  
akordura ekartzean  
beti izaten zaitugu, Mauxi,  
erre artetarron artean.**

Erre Arte kuadrilla





# ESKERRIK ASKO!



**G**iro berezia sortu zen Kalegoen plazan abenduaren 24an. Eguraldia lagun genuela, Kalegoen plaza jendez bete zen. Olentzero eta Mari Domingi, toloak eta edariak, eta duela zazpi urte martxan jarri genuen Elgoibarko Izarraren aldeko tonbola. Gero eta estimazio handiagoa duen tonbola. Zuei esker prestatzen dugun tonbola. Erregaluak ematen dituzuenoi esker. Erregaluak erosteko dirua ematen diguzuen enpresei esker. Boletoa erostera etortzen zaretenoi esker. Antolakuntza-lanetan parte hartzen eta laguntzen duzuenoi esker. Handia da Elgoibarko Izarraren alde egiten duzuen, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu, bene-benetan, egiten duzuenagatik. Eta barkamena ere eskatu nahi dizuegu tonbolako erregaluak jasotzerakoan arazoren bat izan duzuenoi; dena ez da beti nahi bezala irteten. Eskerrik asko, Elgoibar eta, zuek nahi baduzue, datorren urtean ere Kalegoen plazan bilduko gara abenduaren 24an.

2. Estankoa / 40-15 Tenis Elkarte / AEK Euskaltegia / Aerotxuri S.L. / Agurtzane ileapaindegia / Ainara Arnaiz / Ainhoa fisioterapia / Aitor Badiola (Serious Business) / Alberto Gonzalez / Alcorta Forging Group / Aldaz hortz klinika / Alire estetika / Alkorta Bakailaoak / Altzola Berazeta baserria / Amagoia gozo denda / Ametsa kafetegia / Ana Mosacula / Andoni Segundo / Andres Alberdi / Anton Urreisti / Anua errektifikatuak / Amaia Mendikute fruta denda / Aranburu bitxi denda / Arauri lurrindegia / Arilan mekanizatu zentrua / Armueta harategia / Arriere De La Maison De Izaro / Arrizabal Elkarte / Asiatorr / Astigarraga kirolak / Asier Riesgo / Aterpe taberna / Azpi's Bags / Azkue argazkiak / Barrenetxea Etxeberria botika / Beitia Arriola fisioterapia / Beitia Arriola hortz klinika / Belaustegi jatetxea / Beristain Logistika Banaketa / Beristain mekanizatuak / Berkoa / Bitxibitxi / Bizkor bizikletak / BM Complet / Bronymec / C.D. Elgoibar / Caramel goxokiak / Castrillejo estankoa / Cometel / Cristina Garcia estetika eta Terapia Naturalak / Danobat / Dantzan.eus / Darama bitxiak / Denetik bazar txinatarrak / Doña Mercedes okindegia / Ecenarro lenteria / Egondo / Egur arte tailerra / Eibar Futbol Taldea / Eizagirre okindegia / El Bronx / Elena ileapaindegia / El Gautxo taberna / Elgoibar1936 / Elgoibar Ikastola / Elgoibarko Izarra / Elgoibarko Udala / Elgoibarko Udal Ludoteka / Emilia Nogales / Eñaut Elorrieta / Eroski Maala / Errigora / Errosario Hortz Klinika / Errotonda okindegia / Eskuz arte tailerra / Esther Iburguren / ... Eta kitto! Euskara Elkarte / Etxekit / Etxepe / Etxe-Tar / Euskaltzaleon Topagunea / Exclusivas Pelegrin / Faded ileapaindegia / Farmalau parafarmazia / Ferpi Modak / Fotero okindegia / G&M jantzi denda / Gabi jatetxea / Gabiri design / Gaiñdu / Garate jantzi denda / Gararock / Garbiñe estetika / Garitaonandia botika / Gobike bizikleta denda / Gotzon Barandiaran / Grupo Eibar / Gure Esku Dago Mendaro / Hair's ileapaindegia / Haritz Euskal Dantzari Taldea / Herri Eskola / Hurbil informatika / Ibai-Ondo erretegia / Ibarrenea okindegia / Idama ileapaindegia / Ideko / Ikus optika / ILS akademia / Ilunpe taberna / IMH Museoa / Iñigo Azpiroz / Ipintza margoak / Irati Agirreazaldegia / Iria jantzi denda / Iriondo altzariak / Iriondo kirolak / Iriondo taberna / Irune Arriola Andonegi botika / Isleder / Iturri taberna / Ixa Rodriguez / Izakara estudioa / Jai Alai taberna / Jakoba Errekondo / Jasone Osoro / Jesus Mari Makazaga / Jon Gurrutxaga / Jonathan Martin / Jose Alberto Eguren / Jose Antonio ileapaindegia / Juli Arregi / June Loidi / Kala loradenda / Karakate jatetxea / Kemen belardenda / Kilimon Trail (MTE) / King-Kong taberna / Kiroldegiko taberna / Kopilan / Kutxabank / Laboral Kutxa / Lagun Taldea Txirriindulari Elkarte / Lagunak koltxoi denda / Lanbroa taberna / Larre okindegia / Lauko / Leen Rose / Leire Garate (Orio Arraun Elkarte) / Lerun jatetxea / Luba Nails / Lurdes ileapaindegia / Maala kafetegia / Magi Bitxiak / Maite Maiora / Maite Rementería / Manahmana / Manzisidor S.L. / Mapfre / Marcajes Telleria / Maria Urizar ileapaindegia / Marian fruta denda / Markel Bergara / Mari Jose San Millan / Mausitxa gaztandegia / Mautitxa txaranga / Mekanosa / Meraki ileapaindegia / Merino konponketak / Mendaroko Udal Liburutegia / Metala Industriak / Mikel Gurrutxaga / Milar Bire elektrogailuak / Mintxeta Atletismo Taldea / Miquel mertzeria / Moma jantzi denda / Monimbo / Morkaiko Mendizale Elkarte / Munlet / Muruamendiaraz gozotegia / Mutua General de Seguros / MTE Machine / Nalai oinetakoak / Oin Berri podologia zentroa / Olaia Martinez estetika / Ongi iturgintza / Oihane Osoro interiorismoa / Otzak taberna / Otxarreta harategia / Patxi harategia / Pikumek / Pitxintxu opari denda / Roteta elektrizitatea / Rural Kutxa / Sagarmiaña baserria / Sahatzu harategia / Salento pizzeria / Sanlo eskubalo taldea / Sara fruta denda / Sara jantzi denda / Sare fisioterapia / Sigma jatetxea / Sinuöse kultur elkarte / Soarte argazkiak / Su Ta Gar / Suministros Evia / Surya belardenda / Swisslan / Talleres Mecanicos J.Larrañaga / Tantaka taberna / Taupada antzetzaldea / Txankakua merkatari elkarte / Txariduna jatetxea / Txillarre eko denda / Txomin harategia / Unanue mertzeria / Usua terraza / Uxue Alberdi / Uzuri optika / Vanesa Mateos / Viento Sur gastroteka / Xarlem Creations / Yudego Farmazia / Zaloe Arnaiz / Zazpi Informatika / Ziarda harategia / Zu+Ni / ...